


MERKATU-SEGMENTAZIOA

Gure enpresak merkatuaren azterketa egin ondoren, hiru bezero mota lagunduko ditugu. Honako hauek dira:

- Gure baserria ez dago adin talde zehatz bateri zuzenduta, osasuntsu eta ekologikoki jan gure dutenentzat baizik. Egia da, produktuak erosten edo bertako nekazaritzan interesa duten pertsonak helduak eta nagusiak dira, baina edozeinek kontsumitu ditzake gure jakiak.
- Osasuntsu edo jan neurri zorrotzak dituztenentzako aukera egoki izan daiteke, bertako produktuak zaporedunak eta freskoak eskuratzea, prezio eskuragarri batean. Gainera, gaitzak dituzten pertsonentzako aukera ona izan daiteke horrelako jakiak erostea, izan ere, supermerkatuetan erosten ditugun produktuak genetikoki manipulatu daude eta osasun arazoak zor ditzakete.
- **Denbora ez duten pertsonak:** pertsonak normalean ez dute denbora erosketak egiteko, beste zereginetan bait dabiltzate, esate baterako: lanean, umeak zaintzen, etab. Orduan, etxeko salmenta ahalbidetuko dugu, hau da, haien erosketak ahal izango dituzte eta denbora aurreztuko dute produktuak haien etxeetara eramango ditugulako.



DATUEN BILKETA egiteko eta gure bezeroen informazioa eskuratzeko inkestak egingo ditugu fisikoki eta online bidez inguruneko ikastetxeetan (gazteen gustuak, beraien gurasoak txikien gustuak jakinda, produktu horiek erosiho dizkietelako) eta etxeetan (nagusien gustuak ere jakiteko). Honako informazioa ezagutu nahi dugu: adina, zer motako dendetan erosten duten, zer fruta-dendan erosten duten, zer motatako produktuak erosten dituzten, gure laguntza behar izango duten produktuak aukeratzeko eta bideratzeko (Adibidez: barazkia denboraldian badagoen ala ez). Inkesta honen bitartez, bezeroaren informazioa eskuratzear gain, haien gustuak, haien beharrak eta erosketaren ahalmena jakingo dugu. Hau da, ikusita non erosten duten eta zer produktu aukeratzeko duten, beraien egoera ekonomikoa hobeto ulertuko dugu.

-Gure enpresa gero eta bezero gehiago izateko hurbiltasuna eskainiko diegu gure bezeroei, beraien egoerara eta berain adinetara moldatzen. Adibidez, gazteekin hurbiltasuna adierazteko sare sozialak erabiliko ditugu, adibidez Instagram kontu bat zabaltzen, eta han

gure promozio eta deskontu guztiak erakusten. Horrez gain, gende nagusiarekin harremana izateko, promozio, zerbitzu, prezio, deskontu eta gure katalogo guztiak, buzoietan sartuko ditugu, katalogoan gure telefono zenbakia etorriko da eta gure korreoa ere, gurekin kontaktuan egoteko. Gainera, bezeroarekin momentu oro harremanetan egongo gara, edo gure webgunearen bidez edo gure sareen bidez.